urte
años

# MUSIKASTE

EUSKAL
MUSIKAREN
ASTEA

SEMANA
DE LA MÚSICA
VASCA

ERRENTERIA 2022

MAIATZAK 19-28 MAYO

· WWW.MUSIKASTE.COM ·

# EUSKAL MUSIKAREN ASTEA
## SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

**ANTOLATZAILEAK** ORGANIZAN
Andra Mari Abesbatza
Coral Andra Mari
Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa
Eresbil-Archivo Vasco de la Música

**SUSTATZAILEAK** PROMUEVEN
Errenteriako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Kultura Saila
Departamento de Cultura del Gobierno Vasco

**BABESLEA** PATROCINA
Kutxa Fundazioa
Laboral Kutxa
Musika Bulegoa

**LAGUNTZAILEAK** COLABORAN
Herri Arte Eskola
Musikene
Musikagileak
Super Amara

50 urte años
MUSIKASTE

AMA Andra Mari Abesbatza

Eresbil

50 urte años
# MUSIKASTE

## Aurkezpena / Índice

**PROGRAMA**

### Maiatzak 19, 20, 21, 22 mayo


Ganberako Musika
Música de Cámara 13

Lied 16

Dantza
Danza 19

Igande jarduna
Jornada Dominical 24


### Maiatzak 25, 26, 27, 28 mayo


Jazza
Jazz 27

Musika garaikidea
Música contemporánea 29

Koruen eguna
Día Coral 35

Amaierako kontzertua
Concierto de clausura 39

**Musikagileak / Compositores** 40

**Beste ekintzak / Otras actividades** 82

Kontzertu didaktikoak
Conciertos didácticos



# mendeurrenak

## centenarios

**III. JAIOTZAREN MENDEURRENA**
III Centenario del nacimiento de
**Sebastián Ramón de ALBERO**
Roncal (1722-1756)

**II. HERIOTZAREN MENDEURRENA**
II Centenario del fallecimiento de
**Edouard DU PUY**
Baigorri (ca.1770-1822)
**José Mariano ZUBIAURRE**
Deba (1782-1822)

**II. JAIOTZAREN MENDEURRENA**
II Centenario del nacimiento de
**Roque ANSOLA**
Elgoibar (1822-1911)
**José María ECHEVARRÍA**
Ondarroa (1822-1876)
**Joaquín Romualdo GAZTAMBIDE**
Tudela (1822-1870)
**Juan María GOÑI**
Salvatierra (1822-1884)
**Celestina LEDESMA**
Tafalla (1822-1890)



**I. HERIOTZAREN MENDEURRENA**
I Centenario del fallecimiento de

**Román BERECIARTU**
Cegama (1862-1922)

**Carmelo CALVO**
Peralta (1842-1922)

**Christophe DUFAU**
Saint-Pée-sur Nivelle (1888-1922)

**Toribio Modesto IRIONDO**
Elgoibar (1848-1922)

**I. JAIOTZAREN MENDEURRENA**
I Centenario del nacimiento de

**Julián ANSOLA**
Elgoibar (1922-2003)

**Cándido BERISTAIN**
Azkoitia (1922-2000)

**Pablo GARAYOA**
Lerga (1922-1980)

**Jesús KEREXETA**
Escoriaza (1922-2007)

**Juanita SAROBE**
Lesaka (1922-)

MUSIKASTE ofrecerá en mayo de 2022, en Errenteria, su edición número 50. Unas bodas de oro cuya celebración supone todo un hito para los organizadores. La calidad de las obras programadas en la elaboración de los conciertos, los intérpretes convocados y la celebración del cincuentenario, serán las señas de identidad de la presente edición.

MUSIKASTE, desde su modesto origen hasta la actualidad, sigue fiel a su ideario, el cual entre sus objetivos busca promover la investigación de nuestra música, apoyar a los creadores e intérpretes y presentar la música de nuestros compositores de todos los tiempos, desde la música antigua a la música de los autores clásicos, con especial apoyo a los compositores de la actualidad, incluyendo la Danza como nueva disciplina artística ligada al festival.

Todo ello tendrá su reflejo en una publicación conmemorativa para poner en valor la actividad realizada durante estos años y proyectarla al futuro.

MUSIKASTE presenta un concierto dedicado a la música de cámara en su jornada inaugural. El dúo de violonchelo y piano Fanlo & Barandiaran, nos presentará obras de José María Franco Bordons, Antón Larrauri y Beltrán Pagola.

Al día siguiente se desarrollará la jornada dedicada al *Lied*. Miren Urbieta Vega acompañada por Rubén Fernández Aguirre, interpretarán un variado programa con los compositores más representativos de nuestro legado musical: Jesús Guridi, Andrés Isasi, Antón García Abril, Félix Lavilla y Pablo Sorozabal, entre otros.

La danza tomará el relevo con la obra titulada *Erritu*, lo que supone el encuentro entre la compañía Kukai Dantza y el prestigioso coreógrafo Sharon Fridman, en un viaje vital que atraviesa mediante ritos de paso individuales y colectivos, los estados de la vida en relación con la naturaleza y la comunidad.

El Coro San Juan Bautista de Leioa en el día dedicado a la música religiosa estrenará la obra de Jon Sáenz titulada *The lamentations of Jeremiah*, con acompañamiento del grupo de cuerda Ensemble Concorde, y ejecutará además la obra de Xabier Sarasola *De profundis clamavi*.

La jornada continuará con los conciertos de Txistu y Banda, en los cuales se interpretarán obras de Isidro Ansorena, Tomás Aragüés, Roque Ansola, Joxe Mari Oiartzabal y Joaquín Gaztambide, entre otros.

El jazz en MUSIKASTE contará con la participación de Iñaki Salvador Trío, que recreará el universo de Mikel Laboa junto a creaciones propias.

La jornada dedicada a la música contemporánea incluirá nombres consagrados dentro de la escena compositiva vasca. Previamente, se presentará el Cuaderno – *Kaierak* dedicado a Félix Ibarrondo, homenaje a una larga carrera. Ensemble Kuraia, bajo la dirección de Andrea Cazzaniga, será el encargado de abordar el exigente repertorio.

El día coral volverá a rememorar la obra de compositores de dilatada trayectoria junto con una nueva generación de compositores corales, que está teniendo un gran éxito a nivel nacional e internacional. La coral de Etxarri Aranaz, que celebra sus bodas de oro, el coro SUHAR, Landarbaso abesbatza y KUP taldea, serán las agrupaciones encargadas de dar vida a la jornada en Lekuona Fabrika.

Para finalizar, la presente edición recupera el día sinfónico-coral como broche de oro al cincuentenario. Euskadiko Orkestra bajo la dirección de Jaume Santonja y Andra Mari Abesbatza, serán las encargadas de interpretar un variado programa dedicado a los autores más representativos de nuestro panorama musical. Cabe destacar el estreno de la obra de la compositora Saskia Venegas titulada *At the Aegean shores*, reflejo de su interés por el comportamiento sociopolítico humano y la lucha en favor de los derechos en el mundo de la inmigración.

MUSIKASTE | euskal musikaren astea / semana de la música vasca

Musikastek 50. edizioa eskainiko du 2022ko maiatzean Errenterian. Jaialdiaren urrezko ezteiak ospatuko ditugu, eta ospakizuna mugarria izango da antolatzaileentzat. Aurtengo edizioaren ezaugarriak izango dira kontzertuak egiteko programatutako obren kalitatea, deitutako interpreteak eta berrogeita hamargarren urteurrenaren ospakizun bera.
Musikastek, bere jatorri xumetik gaurdaino, sorrerako helburuei leial jarraitzen die. Bere helburuen artean gure musikaren ikerketa sustatzea, sortzaile eta interpreteei laguntzea eta garai guztietako gure konpositoreen musika aurkeztea, antzinako musikatik hasi eta autore klasikoen musikara, egungo konpositoreei laguntza berezia emanez. Dantza jaialdiari lotutako diziplina artistiko berri gisa ere barneratu nahi izan du.
Hori guztia oroitzapenezko argitalpen batean islatuko da, urte hauetan egindako jarduerari balioa emateko eta etorkizunera proiektatzeko.
Musikastek ganbera musikari eskainitako kontzertua aurkeztuko du bere inaugurazio egunean. Fanlo & Barandiaran bikoteak, egile ezagunen lanak aurkeztuko dizkigute, besteak beste, José María Franco Bordons, Antón Larrauri eta Beltrán Pagolarenak.
Hurrengo eguna, *Lied*-ari eskainitako jardunaldia izango da. Miren Urbietak eta Rubén Fernándezek, gure musika-ondareko konpositore esanguratsuenen obrez osatako egitarau anitza eskainiko dute. Honako autorren lanak entzun ahal izango ditugu: Jesús Guridi, Andrés Isasi, Antón García Abril, Félix Lavilla eta Pablo Sorozabal, besteak beste.
Dantzak *Erritu* izeneko obrarekin hartuko du lekukoa, hau da, Kukai Dantza konpainiaren eta Sharon Fridman koreografo ospetsuaren arteko topaketarekin. *Erritu* taldean zein kolektiboan, naturarekin eta komunitatearekin loturik, bizitzako etapak zeharkatuz egiten den bizi-bidaia da.
Leioako San Juan Bautista Abesbatzak, musika erlijiosoari eskainitako egunean, Jon Saenz-en *The lamentations of Jeremiah* obra estreinatuko du, Ensemble Concorde hari-taldearen laguntzarekin, eta Xabier Sarasolaren De profundis clamavi obra interpretatuko du.
Egunak aurrera jarraituko du Txistu eta Banda taldeen kontzertuekin, non Isidro Ansorena, Tomás Aragüés, Roque Ansola, Joxe Mari Oiartzabal eta Joaquín Gaztanbideren lanak interpretatuko diren, besteak beste.
Iñaki Salvador Triok jazz-a ekarriko du Musikastera. Mikel Laboaren unibertsoa birsortuko dute sorkuntza propioekin batera.
Musika garaikideari eskainitako jardunaldiak euskal konposizio eszenan izen ezagunak bilduko ditu. Aurretik, Félix Ibarrondori eskainitako *Kaierak* koadernoa aurkeztuko da, ibilbide luze bati omenaldia. Ensemble Kuraiak, Andrea Cazzanigaren zuzendaritzapean, errepertorio zehatza jorratuko du.
Abesbatzen egunean ibilbide luzeko musikagileen lana gogora ekarriko da berriro, baita Espainian eta nazioartean arrakasta handia izaten ari den musikagile belaunaldi berriaren lana ere. Etxarri Aranazko abesbatza, urrezko ezteiak ospatzen dituena, SUHAR abesbatza, Landarbaso eta KUP taldea izango dira Lekuona Fabrikan kontzertua ahalbidetuko duten taldeak.
Amaitzeko, aurtengo edizioak egun sinfoniko-korala berreskuratuko du, berrogeita hamargarren urteurrenari amaiera bikaina emateko. Euskadiko Orkestrak, Jaume Santonja eta Andra Mari Abesbatzaren zuzendaritzapean, gure musika panoramako autore esanguratsuenei eskainitako egitarau zabala interpretatuko du. Nabarmentzekoa da Saskia Venegas konpositorearen *At the Aegean shores* obraren estreinaldia, giza jokabide soziopolitikoarekiko eta immigrazioaren eskubideen aldeko borrokarekiko duen interesaren isla.

# egitaraua
# programa



maiatzak **19, 20, 21, 22** **mayo**

maiatzak **25, 26, 27, 28** **mayo**



# Barandiaran, María José

Musika ikasketak Donostiako eta Madrilgo goi mailako kontserbatorioetan egin zituen, María Teresa García Piudo eta Ángeles Renteríaren eskutik. Ondoren, ikasketak Ricardo Requejo, Emma Jiménez eta Joaquín Achúcarro maisuekin zabaldu zituen.
BdB piano bikotean zentratutako nazioarteko ibilbide bizia garatu du, Europan, AEBetan Ekialde Hurbila, Asia edo Latinoamerikan kontzertuak eskainiz.
Bakarlari gisa aritu da Lituaniako, Bilboko, Leongo, Mannheim Kurpfalz Chamber Orchestrako, Panamako, Kolonbiako eta Mexikoko Estatuko Orkestra Sinfonikoetan, Juventud Venezolana Simón Bolivar Orkestran, Bogotá, Cali eta Mexikoko Filarmonikoetan edo Camerata Coahuilako orkestrekin, honako hauen zuzendaritzapean: S. Sondeckis, J. J. Mena, J. Amigo, S. Fraas, J. L. Temes, E. Colomer, P. Dury, J. Ledezma, R. Shade, J. Areán, E. Bátiz, T. Golka eta L. Amadio.
Grabazio diskografikoak egin ditu IZ eta Elkar zigiluentzat, baita Espainia, Frantzia, Suedia, Bulgaria, Errumania, Polonia, Argentina, Uruguai, Tunisia, Vietnam eta Filipinetako irrati eta telebista kanal ezberdinetarako ere. Olivier Messiaenen *Visiones del Amén* lanari buruzko film dokumentalaren grabazioan ere parte hartu zuen.
Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan, Donostiako Orfeoiaren Kantu Eskolan eta Zagrebeko Goi Mailako Musika Akademian, Mexiko Hiriko CENART Arteen Zentro Nazionalean, Costa Ricako Unibertsitatean, Bogotako Julio Mario Santo Domingo Antzoki Nagusian eta Caracasko Manuel Alberto López Musika Eskola Esperimentalean eman ditu eskolak.
Bay Tríoko kide ere bada 2016an aurkeztu zenetik, eta emanaldiak eskaintzen ditu gure geografia osoan zehar.




Realiza sus estudios musicales en los conservatorios superiores de San Sebastián y Madrid, en las cátedras de María Teresa García Piudo y Ángeles Rentería. Posteriormente amplía sus estudios con los maestros Ricardo Requejo, Emma Jiménez y Joaquín Achúcarro.
Ha desarrollado una intensa carrera internacional centrada principalmente en su dúo de pianos BdB, ofreciendo recitales tanto en Europa como en EE. UU., Oriente Próximo, Asia o América Latina.
Ha actuado en calidad de solista con las orquestas de Lituania, Bilbao, León, Mannheim Kurpfalz Chamber Orchestra, Sinfónicas Nacionales de Panamá, Colombia y del Estado de México, Orquesta de la Juventud Venezolana Simón Bolívar, Filarmónicas de Bogotá, Cali y Ciudad de México o la Camerata Coahuila, bajo las batutas de los maestros S. Sondeckis, J. J. Mena, J. Amigo, S. Fraas, J. L. Temes, E. Colomer, P. Dury, J. Ledezma, R. Shade, J. Areán, E. Bátiz, T. Golka y L. Amadio.
Ha realizado grabaciones discográficas para los sellos IZ y Elkar, así como en directo para distintos canales de radio y televisión de España, Francia, Suecia, Bulgaria, Rumanía, Polonia, Argentina, Uruguay, Túnez, Vietnam y Filipinas. Participa, asimismo, en la grabación de la película documental sobre la obra *Visiones del Amén* de Olivier Messiaen.
Ha impartido clases en el Conservatorio Superior de San Sebastián, en la Escuela de Canto del Orfeón Donostiarra y ha realizado talleres y clases magistrales en la Academia Superior de Música de Zagreb, en el Centro Nacional de las Artes CENART de México DF, en la Universidad de Costa Rica, en el Teatro Mayor Julio Mario Santo Domingo de Bogotá y en la Escuela Experimental de Música Manuel Alberto López de Caracas.
También forma parte de Bay Trío desde su presentación en 2016, ofreciendo recitales por toda nuestra geografía.

# Fanlo, Iagoba



1994an ekin zion ibilbide profesionalari, Elgar-en kontzertu ospetsua interpretatzeko hautatua izan zenean, Yehudi Menuhinen eta Lynn Harrellen zuzendaritzapean. Azken honekin eta Londresko Royal Academy of Music orkestrarekin debutatu zuen urte horretan bertan.
Harrezkero, orkestra hauetan bakarlari aritu izan da: London New Sinfonia, Northern Chamber Orchestra, Saint Petersburg's Chamber Orchestra, Ciudad Real, Euskadi, Gaztela eta Leon, Murtzia, Asturias eta Sevillako orkestrak, Espainiako Nazionala, Malagako Filarmonika, North Czech Philharmonic Orchestra, Virtuosi di Praga edo Panamako Orkestra Nazionala. Besteak beste, Haydn, Dvořák, Boccherini, M.ª Teresa Prieto, Tchaikovsky, Martínez Burgos, Beethoven, Gulda, Nin-Culmell eta Rodrigoren kontzertuak interpretatu ditu.
A. Aracil, B. Casablancas, E. Guimerá, M. del Barco, T. Aragüés, I. Bageneta, A. Romero, R. Paús, J. Jacinto, M. Martínez Burgos, G. Díaz Yerro, P. Halffter edo C. Perónen mailako musikagileek obrak eskaini dizkiote, eta 2009an Pau Casalsen txelo eta pianorako obra argitaragabearen lehen entzunaldia eskaini zuen.
Aragoiko Goi Mailako Musika Kontserbatorioko biolontxelo katedraduna eta Alfontso X.a Jakituna Unibertsitateko irakaslea da. Horrez gain, Londresko Royal Academy of Music, Bartzelonako Liceu, Norvegiako Musika Akademia edo Madrilgo Goi Mailako Errege Kontserbatorioan irakasle izan da 2001. eta 2020 artean. Bestalde, Bayreutheko Junger Künstler jaialdiko irakasle eta zuzendari gisa lan egiten du eta European Union Youth Orchestrako biolontxeloen tutorea izan da.

Comienza su carrera profesional en 1994, cuando es seleccionado para interpretar el célebre concierto de Elgar bajo las batutas de Yehudi Menuhin y Lynn Harrell, debutando junto a este último y la orquesta de la Royal Academy of Music de Londres ese mismo año.
Desde entonces ha sido solista con London New Sinfonia, Northern Chamber Orchestra, Saint Petersburg’s Chamber Orchestra, las orquestas sinfónicas de Ciudad Real, Euskadi, Castilla y León, Murcia, Sevilla onal de España, Filarmónica de Málaga, Principado de Asturias, North Czech Philharmonic Orchestra, Virtuosi di Praga o la Orquesta Nacional de Panamá interpretando los conciertos de Haydn, Dvořák, Boccherini, M.ª Teresa Prieto, Tchaikovsky, Martínez Burgos, Beethoven, Gulda, Nin-Culmell o Rodrigo, entre otros.
Compositores de la talla de A. Aracil, B. Casablancas, E. Guimerá, M. del Barco, T. Aragüés, I. Bageneta, A. Romero, R. Paús, J. Jacinto, M. Martínez Burgos, G. Díaz Yerro, P. Halffter o C. Perón le han dedicado obras y, en 2009, ofreció la primera audición de la obra inédita para chelo y piano de Pau Casals a petición de la propia Fundación Casals.
Es Catedrático de violonchelo del Conservatorio Superior de Música de Aragón y profesor en la Universidad Alfonso X el Sabio, además de que imparte clases magistrales en centros como la Royal Academy of Music de Londres, el Liceu de Barcelona, la Academia de Música de Noruega o el Real Conservatorio Superior de Madrid, donde ha sido profesor de violonchelo entre 2001 y 2020. Por otro lado, colabora habitualmente como profesor y como director del festival Junger Künstler de Bayreuth y ha sido tutor de violonchelos de la European Union Youth Orchestra.



maiatzak
mayo
**19**

osteguna - jueves
19:00etan
Madalena Ermita

# Ganberako musika
## Música de cámara

José Mª Franco Bordons

- *Siciliana y tambourin*
- *En Oyarzun*

Antón Larrauri

- *Soiñua*

Beltrán Pagola

*Sonata para cantos vascos*
- *Allegro*
- *Andante mosso*
- *Allegro con brío*

**Fanlo & Barandiaran**

Iagoba Fanlo, biolontxeloa
María José Barandiaran, pianoa

# Fernández Aguirre, Rubén

Barakaldon jaio zen 1974an, eta Vitoria Gasteizen egin zituen pianoko goi-mailako ikasketak Albert Nietorekin. Ondoren, abeslarien akonpainamenduan espezializatu zen David Lutzekin Vienan, eta Donald Sulzenekin Munichen. Félix Lavilla, Miguel Zanetti eta Wolfgang Riegerren aholkuak ere jaso zituen.
Carlos Álvarez, Ainhoa Arteta, María Bayo, Gabriel Bermúdez, Elena de la Merced, Vanessa Goikoetxea, Ruth Iniesta, Sabina Puértolas, Nancy Fabiola Herrera, Lisette Oropesa, Ismael Jordi Marina Monzó, Celso Albelo, Javier Camarena, Yolanda Auyanet, Ángeles Blancas, Measha Brueggergosman, Cristina Gallardo-Domâs, Raquel Lojendio, Isabel Rey, José Bros eta abar luze-luzeekin lankidetzan aritua, Teresa Berganza, Renata Scotto, Jaume Aragall, Emilio Sagi, Ana Luisa Chova, eta beste hainbat irakasleren ikastaro eta eskola magistraletan laguntzailea ere izan da.
Operalia 2006 lehiaketako pianista ofiziala eta Valentziako Palau de la Músican, Madrilgo Teatro Realen eta Sevillako Teatro de la Maestranzan maisu korrepetidorea izan da.
Musikaren ondarearen defendatzaile sutsua da, Manuel García Morante konpositorearen aretoko bost operak berreskuratu ditu, Enrique Granadosen integralaren lehen grabazioa eta Antón García Abrilen abestiak egin ditu, eta diskoak grabatu ditu Carlos Álvarez, Carmen Solís, María Bayo, Miren Urbieta-Vega, Nancy Fabiola Herrera, Mariola Cantanero edo David Alegretekin batera.
Era berean, Victoria de los Ángeles Fundazioaren ohorezko patroia da, eta Ópera Actual (2010) saria jaso zuen lirikan egindako lanagatik eta arlo horretan lortzen ari den ospe gero eta handiagoagatik.



Nacido en Barakaldo en 1974, realiza los estudios superiores de piano en Vitoria-Gasteiz con Albert Nieto y posteriormente se especializa en acompañamiento de cantantes con David Lutz en Viena, y con Donald Sulzen en Múnich. Recibe, además, los consejos de Félix Lavilla, Miguel Zanetti y Wolfgang Rieger.
Es pianista habitual de cantantes como Carlos Álvarez, Ainhoa Arteta, María Bayo, Gabriel Bermúdez, Elena de la Merced, Vanessa Goikoetxea, Ruth Iniesta, Sabina Puértolas, Nancy Fabiola Herrera, Lisette Oropesa, Ismael Jordi o Marina Monzó, habiendo colaborado asimismo con Celso Albelo, Javier Camarena, Yolanda Auyanet, Ángeles Blancas, Measha Brueggergosman, Cristina Gallardo-Domâs, Raquel Lojendio, Isabel Rey, José Bros y un larguísimo etcétera, además de ser acompañante en cursos y clases magistrales de Teresa Berganza, Renata Scotto, Jaume Aragall, Emilio Sagi, Ana Luisa Chova, etc.
Ha sido pianista oficial de Operalia 2006 y maestro correpetidor en el Palau de la Música de Valencia, el Teatro Real de Madrid y el Teatro de la Maestranza de Sevilla.
Firme defensor del patrimonio musical, ha recuperado las cinco óperas de salón del compositor Manuel García Morante, ha realizado la primera grabación de la integral de Enrique Granados y las canciones de Antón García Abril, y ha grabado discos junto a Carlos Álvarez, Carmen Solís, María Bayo, Miren Urbieta-Vega, Nancy Fabiola Herrera, Mariola Cantarero o David Alegret.
Es, asimismo, patrono honorífico de la Fundación Victoria de los Ángeles y ha recibido el Premio Ópera Actual (2010) “por su dedicación a la lírica y el creciente prestigio que está consiguiendo en este campo”.

www.mirenurbietavega.com

# Urbieta-vega, Miren



Maite Arruabarrena mezzo-sopranoarekin egin zituen Kantuko goi-mailako ikasketak Musikenen, eta Enrique Ricci eta Maciej Pikulski errepertoristekin eta Horacio Rodríguez Aragón eszena-zuzendariarekin zabaldu zuen prestakuntza. Era berean, Jaume Aragall, Carlos Álvarez, Isabel Monar, Enedina Lloris, Ana Luisa Chova, Montserrat Caballé eta Mirella Freniren eskutik eskola magistralak jaso zituen, eta bere prestakuntza Plácido Domingo Hobekuntza Zentroan osatu zuen Alberto Zeddaren gainbegiratze artistikoarekin, eta José Miguel Pérez Sierra, Gianni Fabrini, Jocelyne Dienst eta Roger Vignoles maisuekin ere lan egin izan du.

Honako opera-rol hauek interpretatu ditu: Contessa *Le nozze di Figaro*-n, Mimí *La Bohème*-n, Liù *Turandot*-en, Donna Elvira eta Zerlina *Don Giovanni*-n, Marguerite *Faust*-n, Adina *L 'elisir d' amore-n*, Arminda *La finta giardiniera*-n, Inés *La favourite*-n edo Stella *Don Fernando, el emplazado*. Zarzuela arloan, *Katiuska, El caserío, Los gavilanes, Luisa Fernanda, Las Calatravas* eta *Benamor* ekoizpenetan parte hartu du.

Juan Carlos Pérez-en *Deitzen dizut, Virgilio* eta Luis de Pabloren *La caída de Bilbao* obren erabateko estreinaldietan parte hartu zuen, Pablo Sorozabalen *Juan José* operan, baita Usandizagaren *La llama* obraren berrestreinaldian ere. Espainian aurkeztu zuen lehen aldiz Valtinoni-ren *Pinocchio*.

Oratorioaren eta musika sinfonikoaren esparruan, *Missa Solemnis, Ah, perfido* eta Beethovenen 9. sinfonia, Dvořák-en *Stabat Mater*, Mahlerren 2. eta 4. sinfoniak, Chaussonen *Poème de l'amour et de la mer*, Brahmsen *Ein Deutsches Requiem,* eta ganbera musikaren arloan, Antón García Abrilen *Tríptico de canciones* lanaren estreinaldi absolutua nabarmentzen da.

2018an *Ametsetan* diskoa grabatu zuen Rubén Fernández Aguirre pianistarekin IBS Classical zigilurako, euskal musikarekiko duen konpromisoa erakutsiz. Horrez gain, 2020an bere ahotsa jarri zuen Charles Colinen izen bereko operan, Maitenaren paperean, eta zigilu diskografiko berak grabatu zuen.

Realizó los estudios superiores de Canto con la mezzosoprano Maite Arruabarrena en Musikene y amplió su formación con repertoristas como Enrique Ricci y Maciej Pikulski o el director de escena Horacio Rodríguez Aragón. Recibió asimismo clases magistrales de la mano de Jaume Aragall, Carlos Álvarez, Isabel Monar, Enedina Lloris, Ana Luisa Chova, Montserrat Caballé y Mirella Freni, y completó su formación en el Centro de Perfeccionamiento Plácido Domingo bajo la supervisión artística de Alberto Zedda, trabajando con maestros como José Miguel Pérez Sierra, Gianni Fabrini, Jocelyne Dienst y Roger Vignoles.

Ha interpretado roles operísticos como los de Contessa en *Le nozze di Figaro*, Mimí en *La Bohème*, Liù en *Turandot*, Donna Elvira y Zerlina en *Don Giovanni*, Marguerite en *Faust*, Adina en *L'elisir d'amore*, Arminda en *La finta giardiniera*, Inés en *La favourite* o Stella en *Don Fernando, el emplazado*. En el ámbito de la zarzuela, ha participado en producciones de *Katiuska, El caserío, Los gavilanes, Luisa Fernanda, Las Calatravas y Benamor*.

Participó en los estrenos absolutos de las obras *Deitzen dizut, Virgilio* de Juan Carlos Pérez y *La caída de Bilbao* de Luis de Pablo, de la ópera *Juan José* de Pablo Sorozabal, así como en el reestreno de *La llama* de Usandizaga. También presentó por primera vez en España *Pinocchio* de Valtinoni.

En el campo del oratorio y la música sinfónica, ha cantado obras como la *Missa Solemnis, Ah, perfido* y la 9.ª Sinfonía de Beethoven, el *Stabat Mater* de Dvořák, las Sinfonías n.º 2 y n.º 4 de Mahler, el *Poème de l'amour et de la mer* de Chausson, *Ein Deutsches Requiem* de Brahms, etc. y, en el ámbito de la música de cámara, destaca el estreno absoluto del *Tríptico de canciones* de Antón García Abril.

En 2018 grabó el disco *Ametsetan* junto al pianista Rubén Fernández Aguirre para el sello IBS Classical, mostrando su compromiso con la música vasca, además de que puso su voz al rol de Maitena en la ópera homónima de Charles Colin que grabó el mismo sello discográfico en 2020.

maiatzak
mayo
**20**

ostirala - viernes
19:00etan
Fatimako Parrokia

## Lied

| | |
|---|---|
| Jesús Guridi | Melodías vascas<br>(de *XXII Canciones del Folk–Lore Vasco)*<br>• *Hasiko naiz*<br>• *Aritz adarrean*<br>• *Garizuma luzerik*<br>• *Hala baita* |
| Andrés Isasi | Dos canciones<br>• *Canto a la Virgen*<br>• *En el campo* |
| Antón García Abril | Tríptico *Tres nombres de mujer*<br>*(sobre textos de poetas vascos)*<br>• *Isabel* (Blas de Otero)<br>• *Ainhoa* (Bernardo Atxaga)<br>• *Begoña* (Angela Figuera) |
| Emilio Arrieta /<br>Carlos Imaz, mold. | • Suite para piano solo sobre temas de *Marina* |

| | |
|---|---|
| Félix Lavilla | *Cuatro canciones vascas* |
| | • *Ai, Isabel, Isabel* |
| | • *Anderegeya* |
| | • *Loa, loa* |
| | • *Aldapeko Maria* |
| Pablo Sorozabal | *Siete Lieder* |
| | • *Ametsetan* |
| | • *Zure mosuan* |
| Pablo Sorozabal | • *¿Por qué Virgen del cielo?* (de la zarzuela *Don Manolito)* |
| Joaquín Gaztambide | • *Pasó la noche* (de la zarzuela *Catalina*) |

Miren Urbieta-Vega, sopranoa

Rubén Fernández Aguirre, pianoa

# Kukai & Sharon Fridman

www.kukai.eus

Kukai dantza konpainiak, **Sharon Fridman** israeldar koreografo ospetsuarekin lankidetzan, eta Luis Miguel Cobo eta David Azurzaren musika sorkuntzarekin, azken honen partaidetzarekin abeslari gisa, *Erritu* ikuskizuna aurkezten du.
Kukai Dantza Errenterian sortu eta kokatutako dantza konpainia da; Jon Maya dantzari eta koreografoaren ekimenez sortu zen, 2001. urtean. Tradiziotik abiatutako sorkuntza garaikidea ikur du. Ikuskizun ugari sortu ditu eta koreografoekin kolaboratu du, esate baterako Marcos Morau, Israel Galván, Cesc Gelabert edo Ttanttaka antzerki konpainiarekin. Sari ugari jaso ditu nazioarteko hainbat jaialditan, hala nola Dantza Sari Nazionala (2017), arte eszenikoen MAX Saria (2009, 2015, 2017 eta 2019) edo Kataluniako Kritikaren Saria (2016).
Sharon Fridman Haderan (Haifa) jaio zen 1980an, eta Madrilen bizi da, gaur egun bere konpainia zuzentzen duen lekuan. 1999an hasi zuen dantzari ibilbidea, eta Ido Tadmor Dance Company ospetsuan sartu zen, Tel Aviven. Kibbutz Contemporary Dance Company, Vértigo dantza-taldea, eta Suzanne Dellal Center, Israelen dantza-sorkuntzarako zentro ospetsua, hainbat proiektuk osatzen dute bere interpretazio-ibilbidea.
2000. urtean hasi zen koreografo lanetan, Phrasal taldearen sorrerarekin. Ondoren, 2004 eta 2008 artean, Mayumana konpainiako koordinatzaile artistikoa eta koreografoa izan zen. Paraguaiko Ballet Nazionala, LaMov (Espainia), Vértigo (Israel), Jus de la Vie (Suedia), Theater Bielefeld (Alemania) edo Espainiako Dantza Konpainia Nazionala bezalako konpainia ospetsuek beren sorkuntzak dituzte errepertorioan.
Bere lana funtsezko hiru zutabetan oinarritzen da: *contact*-aren hizkuntza, dantzaren dimentsio soziala eta “laugarren paretaren” haustura, publikoarekin gehiago konektatzea bilatuz, piezan sartuz eta dantza beraientzat ere esperientzia pertsonala izatea lortuz.



La compañía de danza Kukai, en colaboración con el prestigioso coreógrafo israelí Sharon Fridman —y con la creación musical de Luis Miguel Cobo y David Azurza, además de la participación de este último también como cantante— presenta el espectáculo *Erritu*.
Surgida en 2001 en Errenteria por iniciativa del bailarín y coreógrafo Jon Maya, Kukai Dantza tiene como sello la creación contemporánea partiendo de la danza tradicional vasca. Ha creado numerosos espectáculos y ha colaborado con coreógrafos como Marcos Morau, Israel Galván, Cesc Gelabert o la compañía teatral Ttanttaka, habiendo recibido múltiples premios en diversos festivales internacionales, así como el Premio Nacional de Danza (2017), el Premio MAX a las artes escénicas (2009, 2015, 2017 y 2019) o el Premio de la Crítica de Catalunya (2016).
Sharon Fridman —nacido en Hadera (Haifa) en 1980 y afincado en Madrid, donde actualmente dirige su propia compañía— comenzó su trayectoria como bailarín en 1999 ingresando en la prestigiosa Ido Tadmor Dance Company, con sede en Tel Aviv. La Kibbutz Contemporary Dance Company, la compañía de danza Vértigo, y diversos proyectos para el Suzanne Dellal Center, reputado centro para la creación dancística en Israel, completan su trayectoria interpretativa. Su labor como coreógrafo comenzó el año 2000 con la formación del grupo Phrasal. Posteriormente, entre 2004 y 2008, fue coordinador artístico y coreógrafo de la compañía Mayumana. Prestigiosas compañías como el Ballet Nacional de Paraguay, LaMov (España), Vértigo (Israel), Jus de la Vie (Suecia), Theater Bielefeld (Alemania) o la Compañía Nacional de Danza de España tienen en su repertorio creaciones suyas. Su trabajo está basado en tres pilares fundamentales: el lenguaje del *contact*, la dimensión social de la danza y la ruptura de la “cuarta pared”, buscando conectar más con el público, incorporándolo a la pieza y logrando que la danza sea una experiencia personal también para ellos.

maiatzak
mayo

# 21

larunbata - sábado
19:00etan
Lekuona Fabrika

**Dantza**
**Danza**

ERRITU Kukai Dantza eta Sharon Fridman koreografo ospetsuaren arteko topaketa da. Erritu taldean zein kolektiboan, naturarekin eta komunitatearekin loturik, bizitzako etapak zeharkatuz egiten den bizi-bidaia da. Etapa horiek jaiotzatik kaoseraino doaz, bakardadearen mortuan barrena, harik eta topaketara, maitasunera eta, azkenik, heriotzara iritsi arte.

ERЯITU supone el encuentro entre Kukai Dantza y el prestigioso coreógrafo Sharon Fridman. *Erritu* es un viaje vital que atraviesa mediante ritos de paso individuales y colectivos los distintos estados de la vida en relación con la naturaleza y con la comunidad. Estados que van desde el nacimiento al caos, pasando por el desierto de la soledad, hasta llegar al encuentro, el amor y, finalmente, la muerte.

## ERЯITU

### KUKAI DANTZA & SHARON FRIDMAN

Jon Maya Sein, Jatorrizko ideia
Sharon Fridman, Koreografia
Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte
Izar Aizpuru, Nerea Vesga, Urko Mitxelena, Dantzariak
David Azurza, Kantua
Luis Miguel Cobo & David Azurza, Musika-sorkuntza
Antonio Ramírez-Stavibo, Dramaturgia-laguntzailea
David Bernués & Sharon Fridman, Argiztapenaren diseinua
Ángel Agüero, Soinu-espazioaren diseinua
Ikerne Gimenez, Jantzien diseinua
Oficina 4Play Arquitectura, Eszenografiaren diseinua
Doltza Oararteta Torrealdai, Management

# Errenteriako Udal Txistulari Taldea

Errenteriako Udal Txistulari talde berria 2003ko ekainean eginiko oposaketen ondoren sortu zen. Txistu taldea honako hauek osatzen dute: Xabier Vesga (1. txistua eta zuzendaria), Olatz Oliveri (2. txistua), Josu Izagirre (silbotea) eta Iñaki Letamendia (atabala). Txistu taldeak eginkizun desberdinak ditu: igandero herriko auzo desberdinetan bere hots gozoaz esnatzen gaituzte, hilean behin kontzertua eskaintzen dute Udaletxeko arkupetan, Inauterietako diana goiztiarrak, korporazioak, San Juan bezperako aurreskua, Madalenetako prozesioak, buruhandi eta erraldoiak, eta abar luze bat. Ekintza horietaz gain, herriko beste ekintza eta festetan parte hartzen du. Gainera, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen du beste herrialdetako udal txistu eta txistulariekin batera.



La actual Banda Municipal de Txistularis de Errenteria se formó en 2003 tras la celebración de oposiciones, empezando su andadura el mes de julio. El grupo de txistus lo componen las siguientes personas: Xabier Vesga (txistu 1°), Olatz Oliveri (txistu 2º), Josu Izagirre (silbote) e Iñaki Letamendia (atabal). La banda de txistularis tiene varias funciones: todos los domingos tocan la diana por los barrios de Errenteria, una vez al mes ofrecen un concierto en la plaza del Ayuntamiento, diana de carnavales, corporaciones, aurresku de la víspera de San Juan, procesión de Magdalenas, gigantes y cabezudos. etc. Además de estas actividades, también toma parte en otros actos y fiestas de Errenteria. Asimismo, participa en los actos organizados por Euskalerriko Txistulari Elkartea, con txistularis de otros pueblos y ayuntamientos.

# San Juan Bautista Abesbatza

Leioako San Juan Bautista abesbatza 1968an sortu zuen José Ignacio Sarriak, parrokia-koru gisa, eta hortik hartu zuen herriko parrokiako patroiaren izena. 50 urte baino gehiagoko ibilbide bikaina izan du, eta kontzertu ugari eskaini ditu Espainian eta Europan, orkestra eta zuzendari garrantzitsuekin lan egiteaz gain, estatu mailako abesbatzen testuinguruan erreferentziazko abesbatza izatera iritsi da. Hainbat grabazio egin ditu, eta Basilio Astúlezen zuzendaritzapean, estatuko eta nazioarteko sari garrantzitsuak lortu izan ditu.
2008an osorik berritu zen, eta Leioako Udal Kontserbatorioan sartu zen. Gaur egun, Leioa Kantika Korala haur abesbatzan trebatutako 40 abeslari gaztek osatzen dute. Aro berri honetan, kontzertu asko eskaini ditu Euskal Herrian eta Estatuan, eta sari garrantzitsuak jaso ditu estatuko abesbatza lehiaketa guztietan.
Hainbat erakunde eta orkestrekin kolaboratu du, hala nola Sevillako Orkestra Barrokoarekin Claudio Monteverdiren *L´Orfeo*-ren muntaian Arriaga Antzokian, Conductus Ensemblerekin Dietrich Buxtehuderen *Membra Jesu Nostri*-ren interpretaziorako, edo Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin bere 100. urteurrenaren inauguraziorako Jesús Guridiren *Eusko Irudiak* lanaren interpretazioarekin.
Leioako San Juan Bautista Abesbatza, gaur egun, talde aktibo eta dinamikoa da, eta koru-musikan trebatzeko, eboluzionatzeko eta sakontzeko grina duten abeslari gazteen interesak eta ilusioak gauzatzeko gune bilakatu da.



El coro San Juan Bautista de Leioa fue fundado en 1968 por José Ignacio Sarria como coro parroquial, de ahí que su denominación proceda del patrón de la parroquia de la localidad. En estos más de 50 años de brillante trayectoria, ha ofrecido un gran número de conciertos en España y Europa, además de colaborar con importantes orquestas y directores, llegando a ser una referencia en el panorama coral nacional. Posee varias grabaciones discográficas e importantes premios nacionales e internacionales logrados en su última etapa, ya bajo la dirección de Basilio Astúlez.
En 2008 se renueva en su totalidad, pasando a integrarse en el Conservatorio Municipal de Leioa. En la actualidad lo forman 40 jóvenes cantantes formados en el coro infantil Leioa Kantika Korala. Ya en esta nueva etapa, ha ofrecido numerosos conciertos en el País Vasco y resto del estado, y recibido importantes galardones en todos los certámenes corales nacionales.
Recientemente ha colaborado también con diferentes entidades y orquestas, como la Orquesta Barroca de Sevilla en el montaje de *L´Orfeo* de Claudio Monteverdi para el Teatro Arriaga, Conductus Ensemble para la interpretación de *Membra Jesu Nostri* de Dietrich Buxtehude o la Bilbao Orkestra Sinfonikoa para la inauguración de su 100 aniversario con la interpretación de *Eusko Irudiak* de Jesús Guridi.
La Coral San Juan Bautista de Leioa es en la actualidad un grupo activo y dinámico en el que se cristalizan las inquietudes e ilusiones de un rico colectivo de jóvenes cantantes con amplia experiencia e interés por formarse, evolucionar y profundizar en la música coral.



# Errenteriako Musika Banda

www.emkebanda.com

2014ean Errenteriako Musika Bandak 150 urte bete zituen. 1864. urtean sortua, historian zehar izen ezberdinak jaso izan ditu: "Sociedad Filarmónica" (1864) eta Udal Musika Banda (1923), horrela 1948. urtean orain duen izena hartu zuen. Bandaren zuzendaritza Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate edo Aitor Mitxelena Rubioren ardurapean egon da; eta zuzendari gonbidatu gisa, M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu edota J.M. Guezala. Hainbat sari jaso izan ditu eta Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu zuen (1995 eta 1998an), Musikasten 1995etik egun arte; bai eta Oskorri taldearekin 2008 eta 2014ean. Nazioarte mailan eskaini izan ditu emanaldiak, Bordelen, Lousadan-Oporton (2002) edo Pariseko "La Cigale" antzokian (2010). 1996. urtetik Musika Banden Alardea antolatzen du. 2012an, Nazioarteko Konposizio Lehiaketa antolatu zuen "Musikagileak" elkartearekin batera. ACNUR, Siriako gerrateko kaltetuen edo bestelako kaltetuen aldeko kontzertu solidarioak ere antolatu izan ditu. 2016 urtean bere ibilbideagatik UPV-Orfeón Donostiarra saria jaso zuen. Gaur egun Alain Ayerdi da EMKE-ko zuzendaria.



La Banda de Música de Errenteria, fundada en el año 1864, ha recibido diversos nombres a lo largo de su historia: Sociedad Filarmónica (1864) y posteriormente Banda Municipal (1923), hasta recibir en el año 1948 su actual denominación. Han sido sus directores Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiría, José Luis Mate y Aitor Mitxelena, siendo dirigidos asimismo por M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu o J.M. Guezala. Es poseedora de diversos premios y ha ofrecido conciertos especiales en la Quincena Musical de Donostia (1995 y 1998), Burdeos, Lousada - Oporto (2002), o en la sala "La Cigale" de París (2010); en Musikaste desde 1995 hasta el presente; así como con el grupo vasco Oskorri (2008 y 2014). Organiza desde 1996 un Alarde de Bandas anual. En 2012 EMKE convocó un Concurso Internacional de Composición de obras para banda junto con la Asociación "Musikagileak". La agrupación organiza asimismo conciertos solidarios ayudando a ACNUR, refugiados o colectivos damnificados. En el año 2016 fue galardonada con el Premio UPV-Orfeón Donostiarra a su trayectoria musical. El actual director de EMKE es Alain Ayerdi.

maiatzak
mayo

**22**

Igande jarduna
Jornada dominical

10:00etan
Herriko kaleetan

## Diana

**Errenteriako Udal Txistulari Taldea**

Xabier Vesga, zuzendaria

11:00etan
Maria Donea Zeruratzea Parrokia
Parroquia Santa María de la Asunción

## Eliz musika

Xabier Sarasola • *De profundis clamavi*

Jon Sáenz • *The lamentations of Jeremiah**

**San Juan Bautista Abesbatza**

Ninbe Solana, altoa

Nerea González, sopranoa

**Ensemble Concorde**

Alicia Costa, Iván Mula, Maite Mancisidor, Julen Arzamendi, biolinak
Rubén Fernández, Sara Mei Merino, biolak
Unai Sánchez, Fran Barajas, biolontxeloak
Alba Rodríguez, kontrabaxua

Basilio Astúlez, zuzendaria

*Estreinaldi nagusia

## Txistu emanaldia

12:00etan
Herriko Enparantza

| | |
|---|---|
| Isidro Ansorena | *Agustin, Xanti eta Juan Joxe* |
| Tomás Aragüés | *Lau ale berezikoak** |
| Roque Ansola | *Zezenaren irteera 1 eta 4* |
| | *Vals nº 3* |
| | *Alborada* |
| | *Kontrapasa*<br>*Zortzikoa*<br>*Fandango*<br>*Arin-Arin*<br>*Biribilketa* |

**Errenteriako Udal Txistulari Taldea**

*Maitane Segura Ubegun, fagota

Xabier Vesga, zuzendaria

## Banda emanaldia

12:45ean
Koldo Mitxelena Ikastetxea

| | |
|---|---|
| Joxemari Oiartzabal Beloki | *Gora kaletxiki* |
| Joaquín Gaztambide / Ángel Arias Macein | *Gaztambide* (Fantasía-homenaje) |
| Egoitz Telletxea Etxepare | *Mendian gora* |
| Eduardo Mocoroa | *Ordizia* (Obertura) |
| Tomás Aragüés | *Alborada festiva* (Pasodoble) |
| Félix y Julián Lavilla | *Flores de mayo* (Vals) |
| | *Tus ojos y tus labios* (Bolero) |

**Errenteriako Musika Banda**

Aitor Mitxelena Rubio, zuzendaria

# Iñaki Salvador Trío

Iñaki Salvador Gil, 1962an Donostian jaiotako pianista, konpositore eta moldatzailea, piano, harmonia eta konposizio ikasketak egin zituen José Antonio Medina eta Jesús González Alonso pianisten edo Francisco Escudero konpositorearen zuzendaritzapean, nahiz eta musika modernoari eta jazzari buruzko prestakuntza autodidakta izan.
Nazioko eta nazioarteko jazz musikari nagusiekin kolaboratu du, eta kontzertuak eman ditu nazioko zein atzerriko jaialdietan, lau euskal jaialdietan — Donostia, Gasteiz, Getxo eta Baiona — eta Madril, Bukarest, Quito eta Guayaquil, Manchester eta Berlingo jaialdietan, besteak beste. Horrez gain, New York hirian aurkeztu du bere piano-musika, bakarrik.
15 disko argitaratu ditu lider gisa eta ehundik gora kolaboratzaile gisa era askotako proiektuetan, baina bereziki azpimarragarria da Mikel Laboarekin izan zuen harremana, 25 urtez etenik gabe berarekin lan egin baitzuen.
Sari ugari jaso ditu, hala nola Tete Montoliu I. Saria eta bakarlari gisa hainbat jaialditan – Donostiako Jazzaldia Saria barne (2020)–, *Jazz entre amigos* telebista-saio historikoak emandakoaz gain.
Zinema, antzerki, telebista eta dantzarako musika konposatu du, Max Sarietan finalista izan da birritan, eta Vaivén-Teatro y Música plataformako zuzendarikidea da Ana Pimenta aktore eta ekoizlearekin batera.
Bartzelonako Taller de Músics eta l'Aula de Música Moderna i Jazz, Zarauzko Nazioarteko Jazz Mintegia, Donostiako Udal Musika Eskola eta Jazzle akademian irakasle izan da, eta gaur egun Musikeneko Piano-Jazz irakaslea da.
Gonzalo Tejada Villaverde musikagilea, baxu-jotzaile elektrikoa eta kontrabaxu-jotzailea, Donostian jaio zen 1960an, eta jazz-arloan garatu du bere ibilbidea, bakarlari nazional eta atzerritar ugarirekin batera. Gainera, hainbat grabazio diskografikotan parte hartu du, eta horietako bost bere gidaritzapean argitaratu ditu.
Konpositore gisa, lan ugari idatzi, estreinatu eta grabatu ditu, bai jazz-formazioetarako, bai talde klasikoetarako. Donostiako eta Getxoko jazzaldietan sariak jaso ditu, baita Eusko Jaurlaritzak edo BBK fundazioak ere, eta, gainera, *bebop* lengoaiari eta inprobisazioari eta kontrabaxu-teknikari buruzko hiru liburu argitaratu ditu.
Donostiako Jazzle akademiako irakaslea izan zen eta gaur egun Musikeneko Kontrabaxu-Jazz irakaslea da.
Aitor Bravo Amiama, Vitoria-Gasteizen 1997an jaiotako bateria eta perkusio jotzailea, Araiako taldekoa izan zen eta perkusio ikasketak Jesús Guridi Kontserbatorioan egin zituen, ondoren Musikenen Batería-Jazz goi mailako ikasketak egiteko, 2021ean graduatuz.
Gaztea izan arren, oso aktiboa da euskal musikaren eszenan, eta sarritan kolaboratzen du jazzeko, pop-rockeko, *funkeko*, *reggaeko* eta abarreko hainbat proiektutan, Donostiako, Gasteizko, Getxoko edo Kanazawako (Japonia) jazz jaialdietan edo EHZ Festibalean aritu ondoren.




Iñaki Salvador Gil, pianista, compositor y arreglista nacido en Donostia en 1962, realizó estudios de piano, armonía y composición bajo la dirección de pianistas como José Antonio Medina y Jesús González Alonso o el compositor Francisco Escudero, si bien se formó de manera básicamente autodidacta en lo referido a la música moderna y el jazz.
Ha colaborado con los principales músicos de jazz nacionales y varios internacionales, habiendo ofrecido conciertos en festivales tanto de ámbito nacional como extranjero, destacando los cuatro festivales vascos —Donostia, Vitoria-Gasteiz, Getxo y Baiona— así como los de Madrid, Bucarest, Quito y Guayaquil, Manchester o Berlín, entre otros, además de que ha presentado su música a piano solo en la ciudad de Nueva York.
Ha publicado 15 discos como líder y más de un centenar como colaborador en proyectos de diversa índole, si bien es especialmente remarcable su relación con Mikel Laboa, artista con el que trabajó durante 25 años ininterrumpidos.
Ha recibido galardones como el I Premio Tete Montoliu y varios como solista en diversos festivales —incluyendo el Premio Donostiako Jazzaldia (2020)—, además del concedido por el histórico programa de televisión *Jazz entre amigos*.
Ha compuesto música para cine, teatro, televisión y danza, habiendo sido finalista de los Premios Max en dos ocasiones, y es codirector de la plataforma Vaivén-Teatro y Música, junto a la actriz y productora Ana Pimenta.
Ha sido docente en centros como el Taller de Músics y l'Aula de Música Moderna i Jazz de Barcelona, el Seminario Internacional de Jazz de Zarautz, la Escuela Municipal de Música y la academia Jazzle de Donostia, y actualmente es profesor de Piano-Jazz en Musikene.
Gonzalo Tejada Villaverde, compositor, bajista eléctrico y contrabajista nacido en Donostia en 1960, ha desarrollado su carrera en el ámbito jazzístico acompañando a multitud de solistas nacionales y extranjeros, además de colaborando en múltiples grabaciones discográficas, cinco de las cuales están editadas bajo su liderazgo.
Como compositor ha escrito, estrenado y grabado numerosas obras tanto para formaciones de jazz como clásicas, ha sido galardonado con premios en los festivales de jazz de Donostia y Getxo, así como por el Gobierno Vasco o la fundación BBK, y además ha publicado tres libros sobre lenguaje e improvisación *bebop* y técnica contrabajística.
Fue docente de la academia Jazzle de Donostia y actualmente es profesor de Contrabajo-Jazz en Musikene.
Aitor Bravo Amiama, baterista y percusionista nacido en Vitoria-Gasteiz en 1997, perteneció a la banda de Araia y realizó estudios de percusión en el Conservatorio Jesús Guridi, para posteriormente realizar los estudios superiores de Batería-Jazz en Musikene, graduándose en 2021.
Muy activo en la escena musical vasca a pesar de su juventud, colabora asiduamente en distintos proyectos tanto de jazz como de pop-rock, *funk, reggae*, etc., habiendo actuado en festivales de jazz como los de Donostia, Vitoria-Gasteiz, Getxo o Kanazawa (Japón), o en el EHZ Festibala.

maiatzak
mayo

**25**

asteazkena - miércoles
19:30ean
Niessen Kulturgunea

**Jazza**
**Jazz**

Laboa unibertsoa

- *Izarren hautsa*
- *Txoria-txori*
- *Munduaren esker ona*

Euskal kanta – Euskal dantza

- *Ezpatadantza*
- *Alferretan*

Jatorrizko konposizioak

- *Mind*
- *Beatus ille*
- *Branka 2*

## Iñaki Salvador Trío

Iñaki Salvador, pianoa

Gonzalo Tejada, kontrabaxua

Aitor Bravo, bateria

# Ensemble Kuraia

www.ensemblekuraia.es

María Eugenia Luc-ek 1997an sortua, gure garaiko musikagileen obrak zabaltzea eta kalitate bikaineko talde profesional batez hornitzea du lehentasun, elkarlan estuan aritzeko.
Musika garaikideari lotutako jaialdi eta erakundeetan aritzen da aldizka, hala nola Berlingo Universität der Künst eta Hochschule für Musik, Labirinti sonori (Parma), Milango Kontserbatorioa, Music Around (Estrasburgo), Arsonic (Belgika), SGAE-CNDM Fundazioa, Alacanteko Jaialdia, Reina Sofía Arte Zentroa eta Kanaleko Teatroak (Madril), Donostiako Musika Hamabostaldia, Bilboko Guggenheim Museoa eta BBVA, Fundazioaren zikloetan...
Ensemble Kuraiak enkarguak egiten dizkie konpositoreei eta musika garaikidea zabaltzeko programak eta proiektu pedagogikoak garatzen ditu hauekin lankidetzan arituta: Musikene, Berlingo Klangzeitort, Milango Kontserbatorioa, Nafarroako Goi Kontserbatorioa, Bilboko Guggenheim Museoa eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Era berean, Luis de Pablo edo Félix Ibarrondori buruzko dokumentalak egitea bultzatu du.
Oñatin (Gipuzkoa) jaio zen 1907an. Ikasketak Kanonigo Lateranensekin egin zituen, eta Fernando de Urkia izan zuen musika irakasle. Filosofia eta teologia ikasketak Burgosen jarraitu zituen, eta han konposizio ikasketak osatu zituen José Mª Beobide eta Burgosko Antonio José musikagilearekin. 1929an apaiz ordenatu zen. 1932. urtean Saltara (Argentina) bidali zuten. 1935 arte egon zen, urte horretan Buenos Airesera bidali baitzuten. 1947an Saltara itzuli zen eta Koru Polifonikoa sortu zuen. Buenos Airesen berriz 1951ean, Lagun Onak Korua sortzea sustatu zuen eta parte hartze aktiboa izan zuen Luis Mujikak zuzendu zuen *Saski-Naski* (1946) ikuskizun musikal eta koreografikoaren sorreran.

1955ean Albanyko (New York) Nª Sª de la Concepción elizan organo-jole aritu zen. Nicanor Zabaleta harpa-jole eta Romero anaien dinastiarekin izan zituen topaketa musikalen ondorioz, Madinaren kreazio lanean bitxiak izango ziren hainbat lan sortu zituen harpa zein gitarrarako.

Madinaren konposizio katalogoak orkestrarako lanak eta lan sinfoniko-koralak ere hartzen ditu, baita *Flor de Durazno* opera, ganbera musika lanak, ahots-musika eta musika lan erlijioso ugari ere.

Francisco de Madina 1972an hil zen Oñatin.

Nace en Oñati (Gipuzkoa) en 1907. Realiza sus estudios con los Canónigos Lateranenes, teniendo como profesor de música a Fernando de Urkia. Prosiguió sus estudios de filosofía y teología en Burgos, donde amplía sus conocimientos de composición con José Mª Beobide y el compositor burgalés Antonio José.

Es ordenado sacerdote en 1929. En 1932 es destinado a Salta (Argentina), donde permanece hasta 1935 en que es destinado a Buenos Aires. Vuelve a Salta en 1947, donde crea el Coro Polifónico. Vuelve a Buenos Aires en 1951, donde promovió la creación del coro Lagun Onak y participó activamente en la creación del espectáculo músico-coreográfico *Saski-Naski* (1946), dirigido escénicamente por Luis Mujika.

En 1955 es destinado como organista de la iglesia de Nª Sª de la Concepción en Albany (Nueva York). Los encuentros musicales con el arpista Nicanor Zabaleta y con la dinastía de guitarristas hermanos Romero provocó la creación de un conjunto de obras para arpa así como para guitarra que suponen un color especial en la obra creativa de Madina.

El catálogo compositivo de Madina incluye además obras orquestales y sinfónico-corales, la ópera *Flor de Durazno*, música de cámara y vocal además de una importante cantidad de obras musicales religiosas.

Fallece Francisco Madina en Oñati en 1972.

MOCOROA, Eduardo

# MOCOROA, Eduardo

1867ko urriaren 13an Tolosan jaiotako kapera-maisu, organista eta zuzendaria. Solfeo eta pianoko lehen ikasketak Modesto Letamendia eta Rufo Montillarekin egin zituen, eta saxofoi jotzaile gisa sartu zen Tolosako Udal Bandan, oso gazterik. Hamaika urte zituela, Felipe Gorritik parrokiako musika-kaperan sartzea proposatu zion, eta pianoa, organoa, harmonia, kontrapuntua, fuga eta konposizioa ikasi zituen bertan.

1896an Santa Maria parrokiako kapera-maisu eta organista izendatu zuten, baita Udal Banda eta Musika Akademiako zuzendari ere, eta biolin irakasle izan zen akademia horretan. Hiru urte geroago, Hainauteko (Belgika) Nazioarteko Lehiaketetan bere lanetako batzuek lehen sariak lortu zituzten eta Belgikako erregeak Hainauteko Arte, Zientzia eta Literatur Akademiako ohorezko kide izendatu zuen.

1901ean Tolosako Orfeoiaren sorreran parte hartu zuen, eta bertako zuzendari izendatua izan zen, eta 1921ean Editorial de Música Vasca Argitaletxearen zuzendaritza artistikoa hartu zuen, Tolosan sortua Jesús Guridi eta José Francorekin batera.

Tolosako Udalak Hiribilduaren Seme Kutun izendatu zuen 1942an, eta, urte horretan bertan, Donostiako Orfeoiak eta Felipe Gorriti Eskolaniak ohorezko zuzendari titulua eman zioten. Hurrengo urtean, Alfonso X.a Jakitunaren Gurutzea eman zioten.

Bere ekoizpenak organo, orkestra, banda eta korurako ehundik gora obra biltzen ditu, erlijiosoak zein profanoak, eta genero dramatikoa ere jorratu zuen.

Tolosan hil zen 1959ko urtarrilaren 30ean.

Maestro de capilla, organista y director nacido en Tolosa el 13 de octubre de 1867. Realizó sus primeros estudios de solfeo y piano con Modesto Letamendia y Rufo Montilla, e ingresó como saxofonista en la Banda Municipal de Tolosa a muy temprana edad. Con once años, Felipe Gorriti le propuso ingresar en la capilla musical de la parroquia, donde estudiará piano, órgano, armonía, contrapunto, fuga y composición.

En 1896 fue nombrado maestro de capilla y organista de la parroquia de Santa María y director de la Banda y la Academia de Música municipales, además de profesor de violín en dicha academia. Tres años más tarde, varias de sus obras obtuvieron primeros premios en los Concursos Internacionales de Hainaut (Bélgica), por lo que el rey belga le nombró miembro de honor de la Academia Artística, Científica y Literaria de Hainaut.

En 1901 participó en la creación del Orfeón Tolosano, del que fue nombrado director, y, en 1921, asumió la dirección artística de la Editorial de Música Vasca, creada en Tolosa, junto a Jesús Guridi y José Franco.

El Ayuntamiento de Tolosa lo nombró Hijo Predilecto de la Villa en 1942 y, ese mismo año, el Orfeón Donostiarra y la Escolanía Felipe Gorriti le distinguieron con el título de director honorario. Al año siguiente, le fue concedida la Cruz de Alfonso X el Sabio.

Su producción engloba más de un centenar de obras para órgano, orquesta, banda y coro, tanto religiosas como profanas, además de que también abordó el género dramático.

Falleció en Tolosa el 30 de enero de 1959.

OIARTZABAL BELOKI, Joxemari

## OIARTZABAL BELOKI, Joxemari

1946an Andoainen jaioa. Musika ikasketak, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan burutzen ditu, tronpetako karrera amaierako 1. saria lortuz. Ondoren, Konposaketa eta Orkestra Zuzendaritza tituluak lortzen ditu. Irakasle bezala, 1975ean hasten da Lasarteko “Santa Cecilia” musika eskolan. 1985ean, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, tronpeta irakasle bezala onartzen dute, katedra oposaketa bidez lortuz 1986 urtean. Zentru honetan 1987-89 bitartean Banda Sinfonikoko zuzendaria da; 1990-97 bitartean, Ikasle Bandakoa eta 1998-2000 bitartean, Ikasleen Orkestra Sinfonikokoa.

ETBko programa askotan hartu du parte, zuzendari, konponketagile eta interprete moduan eta baita banda eta beste musika taldeetako zuzendari eta konponketagile bezala ere.

1987tik aurrera, Raimundo Sarriegi konposatzaile donostiarraren Donostiako Martxen, Kaldereroen eta Ihauterietako musikaren konponketak egin ditu bandarako. Santesteban, Sorozabal etab.en konponketak ere egin ditu. 5 disko argitaratu dituzte konponketa guzti horiekin, tartean nabarmentzekoa *Andoainen egina eta entzuna* disko bikoitza.

Nace en Andoain en 1946. Cursa sus estudios musicales en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, obteniendo el 1º Premio Fin de Carrera de Trompeta así como los títulos de Composición y Dirección de Orquesta. Su labor docente comienza en 1975 en la Academia de Música “Santa Cecilia” de Lasarte. En 1985 es contratado como profesor de Trompeta del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, obteniendo la Cátedra por oposición en 1986. En dicho centro dirige entre 1987-89 la Banda Sinfónica, entre 1990-1997 la Banda de Alumnos y de 1998 a 2000 la Ikasleen Orkestra Sinfonikoa.

Ha participado en numerosos programas de ETB como director, arreglista e intérprete y también como compositor, director y arreglista en grabaciones para banda y grupos musicales. Realiza desde 1987 los arreglos para banda de las marchas y piezas de carnaval de Raimundo Sarriegui. También ha realizado arreglos de los compositores Santesteban, Sorozabal, etc. Se han editado cinco discos que recogen buena parte de estos arreglos, entre los que cabe destacar el doble *Andoainen egina eta entzuna*.

PABLO, Luis de

## PABLO, Luis de

Bilbon jaio zen 1930ean. 1937an hasi zituen musika-ikasketak Hondarribiko Moja frantsesen ikastetxean. 1939An, Madrila abiatu zen eta 1952 arte bertan bizi izan zen. Tarte horretan Zuzenbidea ikasteaz gainera, musika-ikasketak bere kabuz sakondu zituen. Darmstadt, Messiaen, Boulez eta Stockhausen-go ikastaroetan hartu zuen parte. Schoenberg-en ikaslea izandako Max Deustch-ek eragin handia izan zuen haren musika-estetikaren bilakaeran.

*Tiempo y Música* (1959-1964) eta *Alea* (1965) sortu zituen musika irekia eta laborategi elektronikoa hedatzeko. Abangoardiako musika jaialdiak antolatzeaz gainera, atzerriko hainbat jaialditan musika esperimentalerako Espainiako ordezkaria da. Musika-lan ugari idatzi zituen enkarguz. Sari ugari eskuratu zituen, horien artean Pueblo Entzute Saria (1967), Charles Cros Akademiaren Sari Nagusia (1969) eta Luigi Dallapiccola Saria (1979). Era guztietako musika-jeneroak bere gain dituen musika-lan katalogo zabala osatu zuen.

Musika-lanak *Coral* (1953), *Invenciones* (1955), *Polar* (1961), *Cesuras* (1963), *Módulos* (1966), *Elephants ivres I* (1972), *Zurezko Olerkia* (1976), *Dibujos* (1979), *Kiu* (1982), *Tarde de poetas* (1986), *Impromptus para orquesta* (1991), *Cape Cod* (1994).

Madrilen zendu zen, 2021eko urriaren 10ean.

Nace en Bilbao el 28 de enero de 1930. Sus primeros estudios musicales los realizó en 1937 en el Colegio en Hondarribia. Trasladado a Madrid en 1939, donde residió hasta 1952, cursó Derecho y siguió sus estudios musicales de forma privada. Concurrió a los cursos de Darmstadt y siguió los de Messiaen, Boulez y Stockhausen. Su contacto con Max Deustch, discípulo de Schoenberg, influyó en la evolución de su estética musical.

Fundó *Tiempo y Música* (1959-1964) y *Alea* (1965), difusora de música abierta y laboratorio electrónico. Organizador de festivales de música de vanguardia y representante español de música experimental en festivales extranjeros, ha sido profesor en las Universidades de Ottawa y Montreal y primer director del Centro para la Difusión de la Música Contemporánea.

Recibió, entre otros, el Premio de la Popularidad Pueblo (1967), el Gran Premio de la Academia de Charles Cros (1969) y el Premio Luigi Dallapiccola (1979). Poseedor, entre otras distinciones, de la Medalla de Oro a las Bellas Artes, el Premio Nacional de Música, el Premio Honegger de la Fondation France y el Premio de la Fundación Guerrero. Su amplio catálogo ensambla obras que abarcan todos los géneros musicales, entre las que podríamos mencionar: *Coral* (1953), *Invenciones* (1955), *Polar* (1961), *Cesuras* (1963), *Módulos* (1966), *Elephants ivres I* (1972), *Zurezko Olerkia* (1976), *Dibujos* (1979), *Kiu* (1982), *Tarde de poetas* (1986), *Impromptus para orquesta* (1991), *Cape Cod* (1994).

Falleció en Madrid el 10 de octubre de 2021.

PAGOLA, Beltrán

## PAGOLA, Beltrán

Donostian jaio zen 1878an, eta bere jaioterrian hasi zituen musika-ikasketak, José Antonio eta Jesús Santestebanekin. 17 urterekin Madrilgo kontserbatorioan piano ikasketak amaitu zituen, karrera amaierako saria lortuz. Donostiara itzuli zenean, Gran Casinoko seikotean parte hartu zuen Goñi biolinista, Teodoro Bello eta Alfredo Larrocharekin batera. Ondoren, Alfredo Larrochak zuzendutako Orkestra Sinfonikoan eta César Figueridok eta Larrochak berak osatutako hirukotean sartu zen. 1912 inguruan, piano-jotzaile bezala aro berri bat hasi zuen, Casals, Cassadó, Thibaud eta Quirogaren laguntzaile bezala, besteak beste.

1902an Arte Ederretako Akademiako (etorkizuneko Udal Akademia) harmoniako eta konposizioko irakasle izendatu zuten, eta 46 urtez horretan jardun zuen. 1928an oposizio bidez Donostiako kontserbatorioko piano katedra irabazi zuen eta *Tratado Práctico de Armonía* idatzi zuen, generoaren teoria modernoenak jasotzen zituena.

Bere ikasle ugarien artean aipatzekoak dira José M.ª Usandizaga, J. M.ª Iraola edo N. Almandoz pianoan, eta P. Sorozabal, J. L. Iturralde, L. Urteaga, T. Garbizu eta F. Escudero harmonian eta konposizioan.

Berandu arte ez zen aritu konposaketan, eta 40 urte zituela ekin zion alderdi horri. Genero sinfonikoa landu zuen, non lau sinfonia, sinfonieta bat, zenbait olerki, kapritxo eta fantasia sinfoniko idatziak utzi zituen. Obra erlijiosoak, korurako obrak, ganbera eta pianorako obrak ere konposatu zituen.

Euskal kantuei buruzko *Sinfonía nº 1, Sinfonía nº 2, Trágica, Fantasía vasca* edo *El monje organista* kapritxo sinfonikoaren estreinaldiek arrakasta handia izan zuten bere garaian. Autore batzuen ustez, euskal sinfonista garrantzitsuena da, “Euskal musika sinfonikoaren aita”.

Bere herrian oso maitatua, 1950eko otsailean, hil aurretik, Donostian omenaldi bat jaso zuen eta, ondoren, Udalak Hiriko Zilarrezko Domina eman zion. Donostian hil zen 1950ean.

Nacido en San Sebastián en 1878, inició los estudios musicales en su localidad natal con José Antonio y Jesús Santesteban. A los 17 años terminó los estudios de piano en el Conservatorio de Madrid, obteniendo el premio de fin de carrera. De regreso en San Sebastián, formó parte del Sexteto del Gran Casino junto con el violinista Goñi, Teodoro Bello y Alfredo Larrocha. Posteriormente ingresó en la Orquesta Sinfónica dirigida por Alfredo Larrocha y en el trío formado por César Figuerido y el propio Larrocha. Hacia 1912 comenzó una nueva etapa como pianista, actuando como acompañante de Casals, Cassadó, Thibaud y Quiroga, entre otros.

En 1902 le nombraron profesor de armonía y composición de la Academia de Bellas Artes (futura Academia Municipal), asignatura que impartió durante 46 años. En 1928 ganó por oposición la Cátedra de Piano del conservatorio donostiarra y escribió un *Tratado práctico de Armonía*, que recogía las teorías más modernas del género.

Entre sus múltiples alumnos cabría destacar a José M.ª Usandizaga, J. M.ª Iraola o N. Almandoz en piano, y a P. Sorozábal, J. L. Iturralde, L. Urteaga, T. Garbizu y F. Escudero en armonía y composición.

No se dedicó a la composición hasta bien tarde, iniciando esta faceta hacia los 40 años. Cultivó el género sinfónico, en el que dejó escritas cuatro sinfonías, una sinfonieta, varios poemas, caprichos y fantasías sinfónicas. También compuso obras religiosas, obras para coro, cámara y piano.

Los estrenos de obras como *Sinfonía n.º 1 sobre cantos vascos*, *Sinfonía n.º 2, Trágica*, *Fantasía vasca* o el capricho sinfónico *El monje organista* cosecharon gran éxito en su época. Algunos autores lo han calificado como el sinfonista vasco más importante, “padre de la música sinfónica vasca”.

Muy querido en su localidad, en febrero de 1950, antes de fallecer, recibió un homenaje en Donostia y posteriormente el Ayuntamiento le concedió la Medalla de Plata de la Ciudad. Falleció en San Sebastián en 1950.

# SÁENZ, Jon

SÁENZ, Jon

Getxon (Bizkaia) jaio zen 1996an. Bere hiriko musika eskolan hasi zituen musika ikasketak, klarinete jotzaile gisa. Berehala Leioako Kontserbatorioan sartu zen Mariano Santamaríarekin pianoko gradu profesionala egiteko. Basilio Astúlezek San Juan Bautista abesbatza taldean parte hartzera gonbidatu zuen, eta hori erabakigarria izan zen getxotarraren etorkizunerako.

Gaur egun konposizioko hirugarren maila ikasten ari da Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Zuriñe F. Gerenabarrena, Ramon Lazkano eta Gabriel Erkorekaren tutoretzapean.

Jon Saenzek konpromiso sendoa du euskal musika koralarekin eta musika garaikidearekin, eta bi munduen arteko zubi bat sortu nahi du, iraganari eta etorkizunari begiratuz bide propioa eraikitzeko.

Nació en Getxo (Bizkaia) en 1996. Comienza sus estudios musicales como clarinetista en la escuela de música de su ciudad. Rápidamente ingresa en el Conservatorio de Leioa para realizar el grado profesional de piano con Mariano Santamaría. Es ahí donde entra en contacto con la música vocal gracias a Basilio Astúlez, que le invita a formar parte de San Juan Bautista Abesbatza, gesto que será determinante para el futuro del getxotarra.

En la actualidad estudia tercer curso de composición en Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco, bajo la tutela de Zuriñe F. Gerenabarrena, Ramon Lazkano y Gabriel Erkoreka.

Jon Sáenz siente un fuerte compromiso con la música coral vasca y con la música contemporánea, de tal manera que intenta crear un puente entre ambos mundos que le permitan expresarse y crear un camino propio con miradas al pasado y al futuro.

# SALVADOR, Iñaki

SALVADOR, Iñaki

Donostian jaio zen 1962. urtean. Piano klasikoa, Akordeoia, Harmonia, Kontrapuntua eta Fuga ikasi zituen, Jesús Gonzalez Alonso eta Francisco Escuderoren ikasle izan zelarik.
Musika modernoaren eta jazzaren alorrean, autodidakta da, Dave Liebman, Richie Beirach, Billy Hart eta Ron McLlure bezalakoen seminarioak jaso bazituen ere. 80ko hamarkadan, Bartzelonako eskola entzutetsuenetan, *Taller de Músics* edo L´*Aula de Música Moderna i Jazz-ean adibidez*, azken graduak ikasi zituen.
Dantza eta Antzerki ikuskizunetarako konposizio eta moldaketak egiten ditu, Tanttakarentzako edo Trapu Zaharra edo Ur Antzerki taldeentzat, besteak beste. Film labur eta luzeetarako musika konposatu izan du, *Urte Illunak*, *Maité* eta *Si quiero* azpimarra ditzakegularik. Gainera telebista eta irratsaioetarako musika egin izan du, eta Mikel Laboa, Txomin Artola, Oskorri, Golden Apple Quartet, Imanol, Luis Eduardo Aute edo Mikel Markez bezalako artisten 60tik gora diskotan parte hartu izan du.
Bere jazz taldeen buru da: Iñaki Salvador Trío, Naima Quartet, Andrzej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet, Iñaki Salvador & Zilbor Hestea, guztiekin diskoak editatu dituelarik. Guztira zortzi disko, horietako batek *Novecento, el pianista del Océano* Tanttakaren ikuskizun arrakastatsuarentzat konposatutako musika biltzen duelarik. Bartzelona, Vitoria-Gasteiz, Madril, Sevilla, Donostia, Getxo, Berlin, Brujas (Belgika) Bucarest (Errumania), Perpignan eta abar bezalako hirietako Jazz Jaialdietan ibili izan da.
Jarduera pedagogiko zabala mantentzen du, hainbat musika eskola eta kontserbatoriotan eskola eta mintegiak eskainiz, Bartzelonako *L´Aula de Musica Moderna i Jazz* eta *Taller de Músics* (hiri berean) adibidez. Musika modernoko irakasle izan da, besteak beste Jazzle eskolan (Donostian) eta Donostiako Udal Musika eta Dantza Eskolan. Egun piano-jazz irakaslea da Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Zentroan.

Nace en San Sebastián - Donostia en 1962. Cursa estudios clásicos de Piano, Acordeón, Armonía, Contrapunto y Fuga, siendo alumno de Jesús González Alonso y Francisco Escudero, entre otros.
En el campo de la música moderna y el jazz es básicamente autodidacta, habiendo participado en seminarios musicales de Dave Liebman, Richie Beirach, Billy Hart y Ron, McLlure y cursado en Barcelona los últimos grados en el Taller de Músics o *L´Aula de Música Moderna i Jazz*, en los años 80.
Realiza composiciones y arreglos para espectáculos de Teatro y Danza, para grupos como Tanttaka, Trapu Zaharra y Ur Teatro, entre otros muchos. Compone música para cortometrajes y largometrajes, entre los que se puede destacar el trabajo realizado para los largos *Urte Illunak*, *Maité* y *Sí, quiero*. Asimismo escribe música para espacios de radio y televisión. Ha aparecido en más de 60 discos de artistas como Mikel Laboa, Txomin Artola, Oskorri, Imanol, Luis Eduardo Aute, Mikel Markez o Golden Apple Quartet, entre otros.
Lidera sus propios grupos de jazz: Iñaki Salvador Trío, Naima Quartet, Andrzej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet, Iñaki Salvador & Zilbor Hestea, editando discos con todos ellos, un total de ocho discos, siendo uno de los últimos la música que compuso para el exitoso montaje teatral de Tanttaka, *Novecento, el Pianista del Océano*. Ha actuado en los festivales de jazz de ciudades como Barcelona, Vitoria, Madrid, Sevilla, San Sebastián, Getxo, Berlín, Brujas (Bélgica), Bucarest (Rumanía), Perpignan, etc.
Mantiene una intensa actividad pedagógica impartiendo clases y seminarios en diferentes Escuelas y Conservatorios, como *L´Aula de Música Moderna i Jazz* de Barcelona y el *Taller de Musics* de la misma ciudad. Ha sido profesor de Música Moderna en escuelas como Jazzle (Donostia) y en la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián-Donostia. En la actualidad es profesor de piano-jazz en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene.

# SANJUÁN, Pedro

1886an jaio zen Donostian. Txikitan solfeoa eta biolina ikasi ondoren, Madrilera joan zen, eta konposizio ikasketak egin zituen Bartolomé Pérez Casas, Manuel de Falla eta Joaquín Turinarekin. 16 urterekin biolinista plaza lortu zuen Madrilgo Orkestra Sinfonikoan, eta kontzertinoa izatera iritsi zen.
Ikasketak luzatu nahian, Parisko Vicent d'Indyren Schola Cantorumean inskribatu zen. Madrilera itzultzean, zuzendaritzan aritzea erabaki zuen eta armadan sartu zen. Laster izendatu zuten Espainiako Errege Etxeko Alabarderoen Bandaren zuzendari, eta, aldi berean, Madrilgo Orkestra Sinfonikoa eta Filarmonikoa hainbat alditan zuzendu izan zituen, bere zenbait obra estreinatuz eta konpositore gisa ezagutzera emanez.
1923an Kubara joan zen eta han Habanako Orkestra Filarmonikoa sortu zuen, eta 1930ean Mexikoko Orkestra Nazionaleko zuzendari gonbidatu gisa kontratatu zuten. Ondoren, Los Angeles, New York edo San Frantziskoko orkestrekin kontratuak lortu zituen, eta nazioarteko zuzendari ospetsu bihurtu zen.
1932an Espainiara itzuli zen eta Europako orkestra askorekin lan egiteko aukera izan zuen, eta Berlin, Lausanne eta Hungaria, Errusia, Austria, Portugal, Suitza eta Ingalaterrako beste hiri batzuk zeharkatu zituen. Gerra Zibila hastean, Estatu Batuetan erbesteratu zen, eta hainbat orkestra iparramerikar zuzendu zituen. Princeton, Rutgers eta Hego Carolinako Converse College unibertsitateetan ere aritu zen irakasle.
Konpositore gisa, bere orkestra-konposizioak nabarmentzen dira, hala nola *Liturgia beltza, Changó, La Macumba, Comparsa yoruba* edo *Babaluayé*, forma, erritmo eta tinbre afrokubatarrak erabiltzen baitituzte. Ganbera-musikarako ekoizpena txikiagoa da, baina hainbat obra instrumental, ahots eta pianorako piezak eta pianorako piezak ditu.
1976ko urriaren 18an hil zen Washingtonen.

Nace en San Sebastián en 1886. Tras estudiar solfeo y violín de niño se traslada a Madrid, donde cursa estudios de composición con Bartolomé Pérez Casas, Manuel de Falla y Joaquín Turina. A los 16 años consigue plaza de violinista en la orquesta Sinfónica de Madrid, llegando a ser concertino.
Deseando ampliar estudios, se inscribe en la Schola Cantorum de Vicent d'Indy en París. Al regresar a Madrid, decide dedicarse a la dirección y se alista en el ejército. Pronto es nombrado director de la Banda de Alabarderos de la Casa Real española, siendo a su vez requerido en diversas ocasiones para dirigir las orquestas Sinfónica y Filarmónica de Madrid, con las que estrena varias de sus obras y se da a conocer como compositor.
En 1923 se traslada a Cuba y allí funda la Orquesta Filarmónica de La Habana y, en 1930, es contratado como director invitado de la Orquesta Nacional de México. Seguidamente obtiene contratos con orquestas de Los Ángeles, New York o San Francisco, convirtiéndose en un director de prestigio internacional.
En 1932 regresa a España e inicia una brillante etapa de intervenciones con orquestas europeas, recorriendo Berlín, Lausanne y otras ciudades de Hungría, Rusia, Austria, Portugal, Suiza e Inglaterra. Al estallar la Guerra Civil se exilia en Estados Unidos, donde dirige varias orquestas norteamericanas. También ejerció la docencia en diversas universidades como Princeton, Rutgers y Converse College de Carolina del Sur.
Como compositor destacan sus composiciones orquestales como *Liturgia negra*, *Changó*, *La Macumba*, *Comparsa yoruba* o *Babaluayé*, caracterizadas por la utilización de formas, ritmos y timbres afrocubanos. Su producción para música de cámara es menor, aunque tiene varias obras instrumentales, piezas para voz y piano, y para piano.
Falleció en Washington el 18 de octubre de 1976.

# SARASOLA, Xabier

SARASOLA, Xabier

1960ean Beasainen jaioa, 19 urterekin hasi zen musika ikasten eta biolin eta piano irakasle tituluak lortu zituen. Gaur egun Beasaingo Udal Musika Eskolan dihardu biolin, harmonia eta kantu koral irakasle.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan eman diren koru zuzendaritza ikastaroetan izan da eta baita Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby eta beste hainbatekin egin diren mintegietan ere. Loinatz koruaren zuzendaria 25 urtez, hauekin parte hartu du hainbat lehiaketatan –eta saria lortu–, kontzertuetan eta jaialdietan. Donostiako Orfeoian kantari izana da eta gaur XX. mendeko koru musika egiten duen KEA ahots taldeko partaide da. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko batzorde teknikoko kide izan da eta Gipuzkoako Gazte Koruaren zuzendari ere bai. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren ikastaroetan koru zuzendaritza irakasten du.

Musikagile ere bada eta korurako hainbat lan egin ditu, hala nola, *Veni Creator Spiritus*, 2002an Tolosan Abesbatzen Lehiaketan ahots berdinetarako polifonia sailean derrigorrezkoa izan zena.

Nacido en Beasain en 1960, inicia sus estudios musicales a la edad de 19 años, obteniendo los títulos de profesor de violín y piano. En la actualidad ejerce como profesor de violín, armonía y canto coral en la Escuela Municipal de Música de Beasain.

Ha asistido a los cursos de dirección coral de la Federación de Coros de Gipuzkoa y a seminarios con Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby, etc. Director del coro Loinatz durante veinticinco años, con quien ha participado en varios concursos obteniendo diversos premios y en numerosos conciertos y festivales corales. Ha sido cantor del Orfeón Donostiarra y ahora lo es del grupo vocal KEA, que se dedica a la música coral del s. XX.

Ha sido miembro del comité técnico de la Federación de Coros de Gipuzkoa y director del Coro Juvenil de Gipuzkoa. Es profesor de dirección coral de los cursos de la Federación de coros de Euskal Herria.

Como compositor es autor de varias obras corales, entre las cuales se encuentra *Veni Creator Spiritus,* obra obligada en la sección de polifonía voces iguales en el Certamen de masas corales de Tolosa 2002.

# SOROZABAL, Pablo

SOROZABAL, Pablo

Donostian jaio zen 1897an. Bere jaioterriko Arte Ederretako Akademian hasi zituen musika ikasketak. 1914an Kasino Handiko Orkestran sartu zen, Alfredo Larrocha biolin irakasleak zuzenduta. Harmonia eta konposizioa ikasi zituen Beltrán Pagolarekin. 1920an Leipzigera joan zen, Stephan Krehlekin kontrapuntua ikasi zuen eta orkestra zuzendaritza Hans Sittekin. Lan handia egin zuen lehenik banda zuzendari gisa eta geroago orkestra zuzendari gisa.

1922koak dira bere abesbatzarako lehen obrak, eta, jarraian, ganbera eta sinfoniko errepertorioko obrak eta txisturako musika idatzi zituen. 1931n *Katiuska* opereta estreinatu zuen, ordutik aurrera musika lirikoa idatzi zuen batez ere, 23 obra, horien artean *La del manojo de rosas, La tabernera del puerto* edo *Adiós a la bohemia*. Zinemarako musika ere konposatu zuen, ahots edo orkestrako generoak ahaztu gabe.

Madrilen hil zen 1988ko abenduaren 26an.

Nació en San Sebastián en 1897. Inició sus estudios musicales en la Academia de Bellas Artes de su ciudad natal. En 1914 ingresó en la Orquesta del Gran Casino, dirigida por su profesor de violín Alfredo Larrocha. Estudió armonía y composición con Beltrán Pagola. En 1920 se trasladó a Leipzig, estudiando contrapunto con Stephan Krehl y dirección de orquesta con Hans Sitt. Desarrolló una gran labor primero como director de banda y más tarde como director de orquesta.

De 1922 datan sus primeras obras corales, a las que siguen obras del repertorio de cámara y sinfónico, y música para txistu. En 1931 estrenó su opereta *Katiuska*, dedicándose a partir de entonces a la música lírica, con un total de 23 obras entre las cuales destacan *La del manojo de rosas*, *La tabernera del puerto* o *Adiós a la bohemia*. Compuso igualmente música para cine, sin olvidar géneros como el vocal o el orquestal.

Falleció en Madrid el 26 de diciembre de 1988.

TELLETXEA ETXEPARE, Egoitz

## TELLETXEA ETXEPARE, Egoitz

Lesakan (Nafarroa) jaio zen, 1987an, eta musika koralak eragin handia izan zuen giro musikalean hazi zen. Bere jaioterriko musika eskolan lehenengo musika heziketa jaso zuen. Han klarinetea ere ikasi zuen, eta, ondoren, Berako musika eskolara joan zen, perkusioan hasteko. Azken horretan Urko Arozena irakaslea ezagutu zuen, eta 15 urterekin konposatzen hastera animatu zuen. Une horretatik aurrera, bere prestakuntza musikala autodidakta da batez ere.

Urteetan zehar hainbat abesbatza, txaranga eta bestelako musika taldetako kide izan da, dantza talde desberdinekin kolaboratuz, trikitixa munduari oso lotuta.

1997tik Lesakako Musika Bandako kide da, eta, besteak beste, banda, abesbatza, txistu, trikitixa eta akordeoirako musika konposatu eta moldatu du. Humanitateetan lizentziaduna eta Nafarroako Unibertsitatean Historiako eta Artearen Historiako ikasketak ditu, irakaskuntzan dihardu bigarren hezkuntzan, eta afizio gisa ikerketa historikoan eta musikalean dihardu.

Nacido en Lesaka, Nafarroa, en 1987, y criado en un ambiente musical muy influido por la música coral, recibe sus primeras nociones en la escuela de música de su localidad natal donde también aprende clarinete, para pasar después a la escuela de música de Bera, donde se inicia en la percusión. En esta última conoce al profesor Urko Arozena, quien le anima a empezar a componer a los 15 años. A partir de este momento, su formación musical es fundamentalmente autodidacta.

A lo largo de los años ha pertenecido a diversas agrupaciones corales, charangas y otro tipo de agrupaciones musicales, colaborando asimismo con otros conjuntos de danza y muy unido al mundo de la trikitixa.

Miembro de la Banda de Música de Lesaka desde 1997, ha compuesto y arreglado música para banda, coro, txistu, trikitixa y acordeón, entre otras formaciones. Licenciado en Humanidades y con estudios de Historia e Historia del Arte en la Universidad de Navarra, se dedica a la docencia en la enseñanza secundaria, teniendo por afición la investigación histórica y musical.

## VENEGAS AERNOUTS, Saskia

VENEGAS AERNOUTS, Saskia

Musikagilea, biolinista eta zuzendaria, nazionalitate bikoitza du — belgikarra eta espainiarra —, hamabi urte zituela hasi zen biolina ikasten Bilboko Kontserbatorioan, Pedro Gandiarekin. Geroago Rotterdamen zabaldu zituen ikasketak, Gordan Nikolitch, Christiaan Bor eta Benzion Shamirren babespean.
Diziplina arteko arte-generoarekiko gero eta interes handiagoa zuenez, biolina eta Codarts-eko New Music Theatre Masterra konbinatu zituen, eta askotariko formazioa jaso zuen konposizioan, inprobisazio musikalean, dramaturgian, antzerki-zuzendaritzan eta interpretazioan. Geroago bere bigarren Bachellor eta Konposizio Masterra lortu zituen Anberesko Errege Kontserbatorioan, Win Henderickxen zuzendaritzapean.
Giza portaera soziopolitikoarekiko eta giza eskubideen aldeko borrokarekiko duen interesa da bere sorkuntzak gidatzen dituen indarra. *At the Aegean shores* poema sinfonikoak eta *At night flamingoes fly* antzerki-pieza musikalak Lesbosko errefuxiatu-guneetan boluntario gisa izandako esperientzia islatzen dute. *A veces, el silencio es la peor mentira* lana Hermes Ensemblek estreinatu zuen 2018an, eta 2021ean International Society for Contemporary Music erakundean Flandes ordezkatzeko aukeratu zuten.
Milo Rau zuzendari suitzarrarekin *Orestes in Mosul* (2019) eta *Familie* (2020) filmetan egindako kolaborazioak Europako antzoki garrantzitsuenetan interpretatu dira. Bere *Medusa* lana trauma osteko estresaren nahasmenduetan oinarritzen da, genero indarkeriaren ondorioz, eta Holanda osoan programatu da. Gainera, Maya Fridman biolontxelo jotzaileak 2023an argitaratuko duen diskoaren parte izango da.
Bruselako Klara Festivalek bi obra berri enkargatu zizkion 2021ean, eta Cultureland plataformak artista egoiliar gisa aukeratu zuen. Gainera, Venegas Ensemble Oihua taldeko sortzaile eta zuzendari artistikoa da. Bere musika Donemus argitaletxeak argitaratzen du.

Compositora, violinista y directora con doble nacionalidad —belga y española—, a los doce años inició su formación musical en el Conservatorio de Bilbao, estudiando violín con Pedro Gandía. Posteriormente amplió sus estudios en Rotterdam, bajo la tutela de Gordan Nikolitch, Christiaan Bor y Benzion Shamir.
Su creciente interés por el género artístico interdisciplinar la llevó a combinar el violín con el Master New Music Theatre en Codarts, recibiendo una variada formación en composición, improvisación musical, dramaturgia, dirección teatral e interpretación. Más tarde obtuvo su segundo *Bachellor* y *Master* en Composición en el Real Conservatorio de Amberes, bajo la dirección de Win Henderickx.
Su interés por el comportamiento sociopolítico humano y la lucha por sus derechos humanos es la fuerza que guía sus creaciones. El poema sinfónico *At the Aegean shores* y su pieza de teatro musical *At night flamingoes fly* reflejan su experiencia como voluntaria en los campos de refugiados de Lesbos. Su obra *A veces, el silencio es la peor mentira* fue estrenada por Hermes Ensemble en 2018 y elegida para representar a Flandes en la International Society for Contemporary Music durante 2021.
Sus colaboraciones con el director suizo Milo Rau en *Orestes in Mosul* (2019) y *Familie* (2020) han sido interpretadas en los teatros más importantes de Europa. Su obra *Medusa* se centra en los efectos de los trastornos de estrés postraumático a consecuencia de la violencia de género y ha sido programada por toda Holanda, además de que formará parte del disco que la violonchelista Maya Fridman publicará en 2023.
El Klara Festival de Bruselas le encargó dos nuevas obras en 2021 y la plataforma Cultureland la eligió como artista residente. Además, Venegas es fundadora y directora artística del Ensemble Oihua. Su música es publicada por la editorial Donemus.

## ZUBIAURRE, Valentín

ZUBIAURRE, Valentín

1837an Garain (Bizkaia) jaio zen. Lehenengo musika ikasketak bere jaioterriko parrokoarekin egin zituen eta 1845ean Nikolas Ledesmak zuzendutako Bilboko Santiago Basilikako musika kaperan tiple bezala sartu zen. Santurtziko parrokiako organista izan zen 1852-1853 bitartean. Bere espiritu urduriak bultzatuta eta bere karrerarekin jarraitzeko dirua lortzeko asmoz, Amerikara joan zen bizitzera, eta bertan bizi izan zen zortzi urtez Guayra eta Venezuelan. Itzuli zenean, Madrilgo Kontserbatoriora joan zen Hilarión Eslavarekin harmoniako eta konposizioko ikasketak zabaltzera, eta karrera amaierako lehen saria lortu zuen. Garai hartan, bere maisuaren eragina erakusten zuten obra erlijioso garrantzitsuak konposatu zituen. *Luis Camoens* eta *Don Fernando, el Emplazado* operak ere idatzi zituen, azken honekin 1869ko opera nazionaleko lehiaketa irabazi zuen, 1871n, Madrilgo Alhambra Antzokian estreinatu zena. 1873an Espainiako Arte Ederren Akademiak Erroman zuen barnetegia onartu zuen. 1875ean Alfontso XII.ak Errege Kaperako bigarren maisu izendatu zuen, eta 1878an Hilarión Eslava hil zenean, lehen kapera maisu bilakatu zen. Urte berean Madrilgo Musika eta Deklamazio Eskola Nazionaleko Instrumentu Taldeko irakasle gisa sartu zen.
Katalogo zabalak, besteak beste, obra erlijioso ugari biltzen ditu (mezak, oratorioak, moteteak, letaniak, etab.), lehen aipatutakoak bezalako opera aipagarriak, ganbera-musika, baita pianorako eta organorako lanak ere. Madrilen hil zen 1914an.

Nace en la localidad de Garay (Vizcaya) en 1837. Realiza los primeros estudios musicales con el párroco de su localidad natal y en 1845 ingresa como tiple en la capilla musical de la Basílica de Santiago de Bilbao, dirigida en esta época por Nicolás Ledesma. Fue organista de la parroquia de Santurce entre 1852-1853. Llevado por su espíritu inquieto y con el objetivo de lograr dinero para seguir con su carrera, se traslada a América, donde reside durante ocho años en la Guayra y Venezuela. A su vuelta se traslada al Conservatorio de Madrid para ampliar sus estudios de armonía y composición con Hilarión Eslava, obteniendo el primer premio de fin de carrera. En esta época compone importantes obras religiosas que muestran la influencia de su maestro, así como las óperas *Luis Camoens* y *Don Fernando, el Emplazado*, esta última ganadora del certamen de ópera nacional de 1869, estrenada en 1871 en el Teatro Alhambra de Madrid. En 1873 acepta el pensionado de la Academia de Bellas Artes España en Roma. En 1875 Alfonso XII le nombra maestro segundo de la Real Capilla, pasando a primero en 1878 tras fallecer Hilarión Eslava. El mismo año ingresa como profesor de Conjunto Instrumental de la Escuela Nacional de Música y Declamación de Madrid. Su extenso catálogo incluye un importante volumen de obras religiosas (misas, oratorios, motetes, letanías, etc.), destacadas óperas como las anteriormente citadas, música de cámara, así como obras para piano y para órgano. Valentín Zubiaurre falleció en Madrid en 1914.




Herri
ARTE ESKOLA
Herri Arte Eskolako Ikasketa
Profesionaletako 5. eta 6. mailako ikasleen
kontzertua



HAE-ko Ikasketa Profesionaletako azken ikas-mailetako ikasleek ikasketa prozesua sendotu eta beren ikasketen heinarekin bat egingo duen testuinguru ahalik eta errealetan jarduteko, Musikaste eszenatoki aproposa da. Hitzordu honek ikasleen motibazioa areagotu egingo du, eta goi-mailetarako sarrera egitea erabakitzen dutenentzat, frogen aurretik norberarenganako konfiantza eta irmotasuna eskuratzeko akuilu ezinhobea da.

# ERRENTERIAKO HERRI ARTE ESKOLA

Errenterian 1916an ekin zitzaion musika irakasteari. Han zuzen ere, José Mª Iraola hasi zen, bi instrumentu-espezialitatetan: metala eta zura. 1918an Udal Musika Akademia sortu zen. Gerra Zibilaren ostean, Musika Kultura Elkarteak hartu zuen Errenteriako musika hezkuntzaren ardura.
Errenteria Musikal musika akademia 1981ean sortu zen, kultura-ekipamendu sendoa martxan jarri nahi izan zuten errenteriarren talde baten helburu nagusi gisa. Ikasleen gurasoen eta Errenteriako Udalaren artean sortu zuten. Akademia hori ez zen ofiziala, baina aintzat hartzea lortu zuen.
1986. urtean, berriz, Oinarrizko Mailako Musika Kontserbatorioko baliozkotasun ofiziala lortu zuen; eta 1991.urtean, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioko behin betiko ofizialtasuna.
Geroago, Hezkuntza Sistemaren Lege Orokorra abian jarri zenean, oinarrizko kontserbatorioa musika-eskola bihurtu eta maila horretako jardunari ekin zion 1993-1994 ikasturtean. Erdi mailako ikasketei dagokionez, berriz, 2000. urtean, ikasketa hauek plan berrira egokitu egun musika irakaskuntza profesionaleko ikastetxe ere bada.
2021/2022 ikasturte honetatik aurrera Herri Arte Eskola gisa arte diziplina berriei kabida emango dien eskola gisa ibilbidea hasi du eta era honetan musikaz gain dantzako 5 espezialitate, antzerkia, hitza-ren eremu artistikoa eta adierazpide plastiko-bisualetan ere ikasteko aukera zabaldu da.

La enseñanza de la música en Errenteria nace en 1916, de la mano de José Mª Iraola, con dos especialidades instrumentales: una de metal y otra de madera. En 1918 se crea la Academia Municipal de Música. Tras la Guerra Civil, la Asociación de Cultura Musical recoge la responsabilidad de la formación musical.
Errenteria Musical surgió en 1981 como objetivo fundamental de un grupo de errenteriarras que se propuso poner en marcha un equipamiento cultural de envergadura, siendo sus fundadores los padres y madres de alumnos y alumnas y el Ayuntamiento de Errenteria. Esta academia no era oficial, pero sí reconocida.
En el año 1986 consigue la validez oficial definitiva como Conservatorio de Música de Grado Elemental y en el año 1991 como Conservatorio de Música de Grado Medio.
Con la puesta en marcha de la Ley General del Sistema Educativo, el conservatorio elemental se reconvierte en escuela de música y comienza a funcionar como tal en el curso académico 1993-1994. Con respecto al grado medio, en el año 2000 adecua dicha enseñanza en el ámbito del nuevo plan de estudios, siendo desde entonces también un centro de enseñanzas profesionales de música.
A partir del presente curso 2021/2022 empieza una nueva singladura como Herri Arte Eskola dando espacio a otras disciplinas artísticas, de modo que además de la música, ofrece la posibilidad de aprendizaje en 5 disciplinas dancísticas, el teatro, el ámbito de la palabra y las artes plásticas y visuales.

maiatzak
mayo

# 24

asteartea - martes
19:00etan
Niessen Kulturgunea

F.Chopin
- *Scherzo* nº 2 op 31

J.S. Bach
- *Partita* nº 1
- *Praeludiun*

Mikel Angulo, pianoa

---

John Mayer
- *Raga* Music
- *Vibhasa-Gunakali*
- *Shiri-Puravi*
- *Kanada-Vasanta*

Kerman Martín, Xabier Ruiz de Azúa, Aitor Juez, klarineteak

---

Emiko Uchiyama
- The *art* of *thangaka*

Eckhard Kopetzki
- *Canned heat*

Bent Lylloff
- Arhus Etude Nr.9

Symphonic Standars
- *Vienna Symphonic Library Percussion*

Aitor Zabala, perkusioa

---

Darius Milhaud
- *Scaramouche*
- II & II mov

Aitor Mitxelena Rubio, saxoa
Javier Fernández, pianoa

## maiatzak mayo | Xabier Olaskoaga Plazan

| | 18:00etan | 18:30ean | 19:00etan |
|---|---|---|---|
| **25** asteazkena miércoles | KLAKE + KONBO | | **MUSIKENEKO JAZZ TALDEA** |
| **26** osteguna jueves | HELDUEN KONBOA | | **MUSIKENEKO JAZZ TALDEA** |
| **27** ostirala viernes | | POP-ROCK TALDEA + DANTZA URBANO-GARAIKIDEA | |



ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

AMA Andra Mari Abesbatza

Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

ERRENTERIA UDALA

KULTURA kreaktiboa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEA PATROCINA

kutxa FUNDAZIOA

LABORAL kutxa

musika bulegoa

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

super amara

Herri ARTE ESKOLA

musikene

Musikagileak